# FEDERATZEKO ARGIBIDEAK

# INSTRUCCIONES PARA FEDERARSE 2026

## EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAN FEDERATZEKO PROZEDURA

2026. urtean EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAn federatu ahal izateko, GETXOko ADM ITXARTU TALDEAk, hemendik aurrera ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEA, honako prozedura hau ezarri du:

1. **"FEDERAZIO-LIZENTZIA-AISIALDIKO TXARTELA-2026. URTEA" orria bete behar duzu.**
   - **2025. urtean federazio-lizentzia gurekin izan baduzu (bi aukera).**

     a) Bete NANa eta izen-abizenak bakarrik, baita bere garaian emandako informaziotik aldatu ahal izan diren datuak ere. Ondoren, datuak babesteko klausula sinatu ondoren, ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEAra bidali behar da posta elektronikoz.

     b) Aurreko urteetan emandako datuak aldatu behar ez badituzu, Itxarturen webgunean dagoen formularioa bete dezakezu. Hau da esteka:
     https://www.itxartu.eus/portfolio/renovacion-licencia-deportiva-de-montana-2026/?lang=eu
     Webgunetik ere sar daiteke, 2026 federatzeko prozesuaren orrian sartuta.
     Formularioa banakakoa da eta lizentzia-eskaera bakoitzerako bete behar da.
     Formularioako "Gorde eta Bidali" prozesua fitxa bete eta bidaltzeko urratsaren baliokidea da.

   - **Klub honetan federatzeko prozesua lehen aldiz egiten baduzu** eremu guztiak bete behar.

   Hala ere, dagokion taulan hautatzen duen aukera adierazi behar da. Ondoren eta behin **sinatuta datuen babesari buruzko klausula** ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEAra bidali behar da.

2. **Hautatutako aukeren araberako diru-kopurua ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEAren kontuan sartu behar da, diru sarrera zeinek egiten duen argi azalduz**. **Federatzeko eskaera bakoitzeko diru sarrera bana**. Kuota kalkulatzeko 2026ko tarifen laburpena begiratu behar da. Bai eskaeran bai prozeduraren azalpen honen bukaeran diru sarrera egin behar den kontuaren zenbakia agertzen da.

3. **Horretaz** aparte, **16 urtekoak (barne) baino txikiagoko aisialdiko-txartelak, haurrak eta gazteak** federatzeko kasuetan, derrigorrezkoa da **ONESPENA FITXA** beteta eta sinatuta bidaltzea.

   Dokumentazio guztia Itxartuko webean kokatzen da **https://www.itxartu.eus/proceso-de-solicitud-de-la-licencia-de-la-federacion-vasca-de-montana-para-el-ano-2026/**.

   Behin dokumentazio guztia beteta eta sinatuta, **mendigoizalea@itxartu.eus** helbide elektronikora bidali behar da.

**INPORTANTEA: diru-sarrera egin arren, kasu bakoitzean behar den dokumentazioa (beteta eta sinatuta) bidaltzen ez bada, ez du eskaerarik tramitatuko federaziora. Dokumentazioa**

# FEDERATZEKO ARGIBIDEAK

# INSTRUCCIONES PARA FEDERARSE 2026

**hau da, FEDERATZEKO ESKAERA ORRIA eta gainera eskatzaileak 16 urtekoak baino txikiagoak badira ONESPENA FITXA.**

Diru sarrera egin aurretik, federatzeko tarifa taula errepasatzea arretaz gomendatzen da eta ordaintzeko kuota berraztertzea baita ere. Modu honetan tramitazioa geldi dezaketen akatsak sahiestu ahal izango dira. Eta gogoratu federatzeko eskaera bakoitzeko diru sarrera bana eta azaldu argi zeinek egiten du diru sarrera.

Federatzeko prozedura honetan ageri diren pausu guztiak ematen dituzten pertsonek abenduaren 30ean baino aurrerago 2026ko urtarrilaren 1ean alta hartuko dute federazioan eta urtarrilean jasoko dute txartela (beti federazio erabilgarritasunaren arabera).

Halaber, **kudeaketa guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira** Algortako Etorbidean 104, Algorta-GETXOn, **2025eko abenduaren 22an eta 29an, astelehenetan 19: 30etik 20: 30era**.

Ondoren, hurrengoko eskaerak eta diru sarrerak federazioan ematen ari izango dira alta egiten diren neurrian. 2026ko apiriletik aurrera ez dira federatzeko eskaera berririk onartuko, salbuespen bereziak izan ezik.

Edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan **mendigoizalea@itxartu.eus** helbidearekin.

## 2026KO TARIFA LABURPENA (2026 EMF TARIFAK IKUSTEA)

| MAILAK | LIZENTZIA +ESTATUA | LIZENTZIA + ESTATUA + PIRINIOAK | BESTE AUKERA BATZUK (GEHITU) | |
|---|---|---|---|---|
| EMF AISIALDI-TXARTELA | 25,67€ | 44,66€ | MUNDUA | 46,92€ |
| EMF HAURRA | 25,67€ | 44,66€ | ESPEDIZIOAK | 2.065,62€ |
| EMF GAZTEA | 31,39€ | 50,38€ | ESKÍ ALPINOA | 38,44€ |
| EMF HELDUA | 95,91€ | 114,90€ | SNOW | 50,99€ |
| ONURADUN HELDUA | 87,55€ | 106,54€ | BTT | 21,56€ |
| EMF 65 URTETIK GORAKOA | 71,56€ | 90,55€ | **Euskal Lizentzia** nahikoa da **Estatuko aterpe gehienetan** deskontuak izateko | |
| 65 URTETIK GORAKO ONURADUNA. | 63,20€ | 82,19€ | | |

**AISIALDI-TXARTELA,** 2013/01/01 ondoren jaiotakoak
**HAURRA**, 2013/01/01–2019/12/31 bitartean jaiotakoak Foru Aldundiko baimenarekin

**GAZTEA**, 2009/01/01 – 2012/12/31 bitartean jaiotakoak
**HELDUA**, 1962/01/01-2008/12/31 bitartean jaiotakoak
**65 URTETIK GORAKOA**, 1961/12/31 baino lehen jaiotakoak

**AISIALDI-TXARTELAK, HAURRAK ETA GAZTEAK:** Gehitu 16 urtekoak (barne) baino txikiagoaren Onespena fitxa

**ONURADUNAK: HELDUA edo >65 URTE** kategoriakoak izanik, **bizileku berean beste federatu batekin** bizi diren federatuak dira. Kasu honetan federatu titularraren NANa derrigorrez adierazi behar da gutxienez.

PIRINIOAK aukeraren barruan, Frantziar Pirinioak, Andorra, Portugal eta Maroko estaldurak sartuta daude.
MUNDUA, aukeraren barruan, mundu guztiko estaldurak sartuta daude Expedizioak izan ezik.
ESPEDIZIOAK, 6900 metro baino goragoko garaierako espedizioetara asegurua zabaltzeko.
ESKI ALPINOA, eski alpetarraren ekintzetara asegurua zabaltzeko.
SNOW, snowaren ekintzetara asegurua zabaltzeko.
BTT, mendi txirrindularen ekintzetara asegurua zabaltzeko.

**OHARRAK:**
Helduek eta 65 urtetik gorakoek lizentziarekin batera Pyrenaica aldizkaria jasoko dute.
Iraupen eskia balizen bidez markatutako estazioetan egiten duten pertsonek edo igogailu mekanikoak erabiltzen dituztenek alpetar eskirako aukera izan behar dute.
Aseguruak Nordic Walkingen jarduerak ere estaltzen ditu.

# FEDERATZEKO ARGIBIDEAK

# INSTRUCCIONES PARA FEDERARSE 2026

Lizentzia ematen den unean EMFn aita edo ama federatua dutela egiaztatzen duten Haur, Aisialdi-txartela eta Gaztea modalitateetako federatuek % 50eko deskontua izango dute aseguruaren prezioan: Estatua, Pirinioak eta Munduko estalduretan. (Aukeretan EZ da aplikatuko)

**ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEAk, FEDME aukera ezin du tramitatu "Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada"-en elkartuta ez egoteagatik.**

| |
|---|
| ITXARTU TALDEAREN KONTUAREN ZENBAKIA<br>(KUTXABANK **ES54 2095 0022 0091 0566 7884)** |

2025eko Abendua ITXARTU MENDIGOIZALE TALDEA